




LOREREN IBILALDIA



LIBURUAREN FITXA

Pat Hutchins. *Loreren ibilaldia*. Pamiel-Kalandraka, 2011

AURKEZPENEA

Istorio hau aspaldian kontatzen hasi zen, 1968an hain zuzen ere. Orduz gero herrialde askotan belaunaldi belaunaldi transmititu da, liburu eder honen bitartez. Gurera oraintxe iritsi da. Loreren antzeko istorio txiki asko ikusi ditugu liburu hau ezagutu aurretik, “Correcaminos eta Coyoteran” abenturak eta haien arteko liskarrak belaunaldi askotako jendeak partekatu eta guztion memoriaren parte bilakatu dira. Irudiak oso erakargarriak egiten zaizkigu: kolore bizi-biziak, konposaketa geometriko batean biltzen da espazio ezagun batean Lore oiloak egun batean egiten duen ibilaldia. Apenas du testua liburuak, beraz, irakurketa bisual bat eskatzen digu liburuak, guk eta gure hurrek sortu beharko dugu ipuin honetan gertatzen dena.

KONTAKETA

- Narrazioa sekuentzia batean gertatzen da, bi orriz behin osatzen da sekuentzia bakoitza. Ezuste handi batekin osatu gainera.
- Orriz orri ikusten dugu Lorek bere egunerokotasunean betetzen duen errito bat. Bere etxe inguruko patioa inguratzen du.
- Baina egun horretan Lore ez dabil bakarrik; bera konturatu gabe norbait du atzetik, isilka eta misilka.
- Testuari begiratzen badiogu, berehala antzemango dugu ez duela gertatzen den guztia kontatzen. Irudiek kontatzen dute han gertatzen dena.

PROPOSAMENAK LUZATZEN

- Espazio osoa ikusi eta ibilaldi guztia kokatu bertan. (Espazio osoa liburuaren atarian ikusi ahal izango duzue).
- Irudiak ikusi testua irakurtzen zaien bitartean, inolako komentariorik egin gabe irakurketa aldi osoan.
- Irakurketa bitartean, azeriaren irudia seinalatu eta ikasleen komentarioei kasu egin.

PROPOSAMENAK ZEHAZTEN

- Ikasleei eskatu azeriaren istorioa kontatzeko. Zer pentsatzen du pasarte bakoitzean? Noizbait harrapatuko al du oiloa?
- Ikasle txikiekin oiloa eta azeriaren arteko lehia marraztu, album honek erabiltzen dituen koloreak kontutan hartuz.